

Sailburuen desfilea

Joxean Agirre

Denbora bat daramat ohean sartu eta loak hartzeko ardiak kontatu beharrean sailburuak kontatzen, Gobernuako sailburuak esan nahi dut, Arantxa Tapia, Jon Darpon eta enparauak alegia. Eta horren errua Roland Bart-hesek du, eguneko jarduna eten eta ohera joan aurretik garunari atsedean emateko telebista ikustea gomendatzen baitzuen.

Badakit iparramerikar idazle gazteek telebista piztuta idazten dituztela beren eleberririak eta pantaila txikiko pertsonaiak sartzen dituztela orrialdeetan. Gu ez gara horretara iritsi. Ez dakit nori entzun edo irakurri nion goizean telebista ikustea baururik ginebra edatea bezala dela. Esaten didate gainera, eta egia izango da, biharko literaturaren ernamuina ere telesailetan dagoela, baina nik ez ditut jarraitzen. Gaueko albistegien ordua iristean telebista piztu eta dagoeneko motelduta dudana garuna motelagotzeko esertzen naiz; eta, bidena-

bar, gurean eta munduan zer gertatu den jakiten dut.

Pizten dut, beraz, ETB eta hasten naiz sailburuen desfilea ikusten. Ez da egunero izaten, baina bai ia beti. Ez da Gurutzetako ospitalean gela berririk zabaltzen, ez da auzoren batean txertorik ematen Jon Darpon telebistan atera gabe, berdin dio Ebola, Zika, gripea edo zein izurriteren mehatxua dugun.

Ez da elkarte autonomo honetan inbertsiorik egiten, ez da autobusik edo trenik atzerriko merkatuan saltzen, ez da ordezkarrizarik Txilera edo Taiwanera joaten Arantxa Tapia bozemaile ez badoa. Etxean ordu horretan bukatu ohi dugu afaria eta, bakarrik ez naizenetan behintzat, mahaitik altxatzen naiz. «Nora zoaz?», galdetzen didate eta «Arantxa Tapia ikustera», erantzuten diet. Esertzen naiz sofara eta agertzen da, berdin dio Culinary Centerreko sari baten berri ematen edo Txinako altzairuaren *dumping*-ari buruz hizketan.

Ez dut sekula telebistan lanik egin, baina milaka prentsaurreko eta aurkezpen laburbildu behar izan ditut. Politikoei tarte bat egin izan badiet ere, bazter bateko aipamena izaten zen gehienetan, beren arloko kontu bat ez baldin bazen behintzat.

Ez naiz batere erretxina telebistaren aurrean, oso konformaeraza baizik. Helburua lortzen hastea delarik, programa txarrenen bila ere ibili izan naiz. Sailburuen desfileak, ordea, urduri jartzea nau.

Otsailaren azken egunetan bi lege proposamen aurkeztu zituen EH Bilduk Legebiltzarrean «albistegiak benetan independenteak izan daitezen bermatzeko», eta konfiantzazko karguen sistemarekin amaitzea eskatu dute. Horrela jakin dut albistegietako buroak ere agintean dagoen alderdiak izendatzen dituela.

Gauzak konpontzen diren bitartean albistegirik ez ikustea erabaki dut. Ardiak kontatuz egingo dut salto Morfeoren besoetara. •

Bidaiatzeari beldur?

Egoitz Arruti

Hilabete pasatxo da dagoeneko Aste Santutako destinoa erabaki genuenetik. Europa geneukan helburu, eta haren hiriburua, Berlin, hautatu genuen. Hiri kosmopolita, hiru gizonezko gazte osatutako taldeari beharrian guztiak asetzeko modukoa: turista izatea antzetzeko hamaika leku, eta parranda amagabeak egiteko beste horrenbeste lokal.

Azken aste honetan, baina, Alemaniako hiriburua astindu duen gertaera batek zailantza eragin dizkigu. Iragan asteartean, bonba-auto batek eztanda egin zuen hiriburuaren iparraldean, pertsona baten heriotza eraginez. Hala, idatzi nuen Whatsappean: «Bonba-auto bat lehertu ditek

Berlinen». Eta noski, segituan iritsi ziren erantzunak, batzuk erdi brometan besteak serio: «ISISek aldarrikatu arte lasai egon gintezke», idatzi zuen batek; «akojonatuta nagok», gaineratu zuen besteak. Kontuak kontu, kontu-garbitze bat izan zela zabaldu zuten hedabideek, droga aferak medio.

Aipatu gertakariak bi galdera sorrarazi zizkidan nire baitan. Batetik, gisa honetako gertakari baten ondorioz bidaia bertan behera uzteko gai izango ote nintzen galdetu nion nire buruari, eta, bestetik, nire bidaialagunetako batek aipatu erabakia hartuko ote zuen gaineratu nion galderari. Lehengoaren erantzuna baneukan: ez. Beldurti samarra izan arren, seguru sentitzen

naiz European barrena bidaiatzen dudanean. Izan naiz gatazka handiagoko guneetan, eta behin ere ez dut damuarazi nauen esperientziarik bizi izan; gehienez jota, tiro hots batzuk entzun ditut ostatu hartua nuen hotelaren kanpoan.

Bigarrenak, baina, buruhauste gehiago eragin zizkidan. Iruditzen zait egon daitekeela “terrorismoaren” aitzakian atzera urrats bat egitera behartua sentitzen den jendea; gertaeren gehiegizko dramatismoak eraginda etxean hobeto dagoela erabakitzen duen jendea. Oraingoan, hirurok jarriko gara Berlinera bidean, bestelako gertaera batek arrakala gehiago irekitzen ez dizkigun bitartean behintzat. •